



**Gipuzkoako Foru Aldundia**

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua  
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

**2017ko EBALUAZIO TXOSTENA**  
**Gipuzkoako Bizikletaren Estrategia**

Donostian, 2018ko maiatzaren 18an



## Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua  
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

### AURKIBIDEA

1.	Aurkezpena	3
2.	Gipuzkoako Foru Aldundiak 2017an egindako ekintzak .....	4
3.	Bizikletaren Estrategia ebaluatzeko adierazle-sistema .....	20
4.	Balantze orokorra .....	36



### 1. AURKEZPENA

Gipuzkoako Bizikletaren Estrategia 2014-2022, Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluaren batzarrak 2015eko martxoaren 24an onartu zuena, Foru Aldundi honek epe horretarako bizikleta bidezko mugikortasunaren arloan garatuko dituen politika eta jarduera-ildoak orientatzeko tresna da.

Horiek gauzatze aldera, estrategiak urteko kudeaketa-plana prestatzea aurreikusten du, bertan jasotzeko urtean zehar zabaldu beharreko jarduera-programen multzoa.

Era berean, emaitzak ebaluatzeko mekanismo gisa txosten bat idaztea finkatzen du. Txosten hori egiteko bi alderdi hartuko dira oinarritzat: estrategian finkatutako helburuetatik ondorioztatutako emaitzak –adierazle-sistema batean jasoko baitira–, eta urteko kudeaketa-planean aurreikusitako ekintzen gauzatze-maila.

2017. urteari dagokion kudeaketa-plana egiteko, oinarritzat hartu zen Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuko bizikleta bidezko mugikortasunaren arlorako Gipuzkoako Batzar Nagusiek ekitaldi horretarako onarturiko aurrekontua, hain zuzen ere, 2.348.674 eurokoa. Kopuru horretan ez daude sartuta Foru Aldundi honetako beste departamentu batzuek bizikleta bidezko mugikortasunaren arlora bidera ditzaketen zenbatekoak; bai ordea Bide Azpiegituretako Departamentuak bizikleta-bideen foru-sarea mantentzera edo zaintzera bideraturikoak.

Era berean, aipatu beharra dago eraikuntzako inbertsio batzuek Europako Batzordearen diru-laguntza jaso dezaketela gerora, Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren (EGEFen) bitartez; diru-laguntza horiek ez dute areagotzen aurrekontua, baizik eta jada eginiko ekintzak finantzatzen dituzte.

Beraz, ebaluazio-txosten hau idatzi da (hirugarren txostena da, 2015ean Gipuzkoako Bizikletaren Estrategia indarrean jarri zenetik), Foru Aldundi honek harturiko konpromisoa betetzeko. Dokumentua Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluari igorri beharko zaio, hark aztertu eta irizpena eman dezan<sup>1</sup>.

---

<sup>1</sup> Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluaren araudiak 4. artikuluan ezartzen du bere jarduera-eremua Gipuzkoako Bizikletaren Estrategia egin, garatu eta ebaluatzera mugatuko dela.



## 2. 2017ko KUDEAKETA-PLANEAN AURREIKUSIRIKO EKINTZEN EBALUAZIOA

Jarraian, Bizikletaren Estrategiaren 2017ko Kudeaketa Planean aurreikusiriko ekintzak aurkeztuko dira, eta gauzatze-mailaren arabera horietako bakoitzari eginiko balorazioa.

Informazio hori 11 ardatz estrategikoen eta Bizikletaren Estrategiak ardatz horiek zabaltzeko aurreikusitako lan-programen arabera egituratua dago. Hartara, 2017an ardatz bakoitzean egindako aurrerapenak azter daitezke eta aurreko urteetan lortutako emaitzekin aldera daitezke, horien garapena ikusteko.

Jarraian aurkezten diren datu ekonomiko guztiek BEZa barne hartzen dute.

### 1. ARLOA: Azpiegiturak eta zerbitzuak

#### 2.1. Azpiegiturak eta zerbitzuak

##### 1. Udal azpiegitura- eta zerbitzu-sareak osatzea eta hobetzea

Programak	Aurreikusitako ekintzak	Aurreikusitako aurrekontua	Gauzatze-maila
1.1 Udal-azpiegiturak eta -zerbitzuak sortzeko programa	Udalentzako diru-laguntzen deialdia, bizikleta-bideak/oinezko bideak eraikitzeako proiektuak idazteko edo bide horiek eraiki, berritu eta hobetzeko proiektuak gauzatzeko.	75.000,00 €	Gauzaturiko ekintza. Gauzaturiko aurrekontua: 73.516,68 € Desbideratzea: - % 1,97  3 udali eman zaizkie diru-laguntzak (Anoeta, Eskoriatza, Lazkao).



## 2. Foru azpiegitura- eta zerbitzu-sareak osatzea eta hobetzea

Programak	Aurreikusitako ekintzak	Aurreikusitako aurrekontua	Gauzatze-maila
2.1 Foru-azpiegiturak eta -zerbitzuak sortzeko programa	Foru bizikleta-bideen oinarrizko sareko tarte berrietan inbertitzea:  1. Bidasoa Ospitalea – Amuteko bidegurutzea (Hondarribia) tarte eraikitzea. <sup>2</sup> 2. Azitain – Maltzaga (Eibar) tarte eraikitzeako proiektua idaztea. 3. Lezo – Pasai Donibane tarte eraikitzea. <sup>3</sup>	1.955.800,00 €	Ekintza partzialki gauzatu da:  – Bidasoa Ospitalea – Amuteko bidegurutzea tartearen lizitazioa eta gauzatzea ez ziren burutu, Portu eta Itsasertzen Zuzendaritza Nagusiaren derrigorrezko baimena jasotzean izaniko atzerapenagatik.  Hala ere, kopuru hori Urrestillako bidegorria kofinantzatzeko eta Antzuolako Iraetako tunelaren mantentze- eta zaintze-lanetarako bideratu zen.  – Azitain – Maltzaga tarte eraikitzeako proiektua idatzi zen.  – Lezo – Pasai Donibane tartearen hiru faseetako lehena eraiki zen.  Ekintza horiez gain, Zegama – Ondaraldea Poligonoa bizikleta-bidearen hasiera egin da, Bide Azpiegituretako Departamentuaren eskutik (hori ez dago sartuta Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuaren au-

<sup>2</sup> Bidasoa Ospitalea – Amuteko bidegurutzea tarteko bizikleta-bidea eraikitzeako proiektua EGEF Eskualde Garapenerako Europako Funtsak kofinantzatu du % 65ean, Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra Programaren bidez (POCTEFA 2014-2020).

<sup>3</sup> Azitain – Maltzaga (Eibar) eta Lezo – Pasai Donibane bizikleta-bideak eraikitzeako proiektuak Europako Batzordearen diru-laguntzaren xede izango dira, EGEF Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren bidez.



## Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua  
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

			rrekontuan). Gauzaturiko aurrekontua: 2.077.448,39 € Desbideratzea: + % 6,22
2.2 Foru-sarea zaintzeko programa	Bizikleta-bideen foru-sarea zaintzeko lanak egitea; lan horiek kontratu integralan sartuta daude.	Zehaztu gabeko kopurua	Gauzaturiko ekintza. Gauzaturiko aurrekontua: 845.500,00 €
2.3 Foru-azpiegiturak eraberritzeko eta hobetzeko programa	Bizikleta-bideen foru-sareari jarraipena egitea: kontagailuak: kontagailuak mantentzea, SMS, pilak aldatzea.	Zehaztu gabeko kopurua	Gauzaturiko ekintza Gauzaturiko aurrekontua: 12.823,58 €
	Kontagailu berriak eskuratzea	90.000,00 €	Gauzaturiko ekintza Gauzaturiko aurrekontua: 59.411,00 € Desbideratzea: - % 33,99  Aurretik txosten bat idatzi zen, oinezkoen eta bizikleten aforalekuen foru-sarean kontagailu automatikoak jartzeko beharrari buruz.

### 3. Bizikletak galtzadetan sartzea: trafikoa moteltzea

Programak	Aurreikusitako ekintzak	Aurreikusitako aurrekontua	Gauzatze-maila
3.1 Hiri-esparruan trafikoa moteltzeko programa	Trafikoa moteltzeko ekintzak hiri-eremuetan, eta txirrindulariak galtzadan sartzea	Zehaztu gabeko kopurua	Gauzaturiko ekintza Gauzaturiko aurrekontua: 262.116,40 €



## Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua  
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

			2 ekintza burutu dira: oinezkoen bidegurutzea hobetzea eta espaloia eraikitzea N-634 errepidearen 27'400 KP-n; eta oinezkoen bidegurutzea hobetzea GI-2630 errepidearen 18'400 KP-n.
--	--	--	--

## 2. ARLOA: Sustapena, kudeaketa eta erregulazioa

### 2.2. Azpiegiturak eta zerbitzuak

#### 1. Udal azpiegitura- eta zerbitzu-sareak osatzea eta hobetzea

Programak	Aurreikusitako ekintzak	Aurreikusitako aurrekontua	Gauzatze-maila
1.2 Prestakuntza-programa udal-azpiegitura eta zerbitzuen arloan	Bizikleta bidezko mugikortasunari buruzko nazioz gaindiko jardunaldia, arduradun teknikoak eta politikoak sentsibilizatzeko eta gaitzeko.	40.000,00 €	Gauzaturiko ekintza. Gauzaturiko aurrekontua: 35.202,75 € Desbideratzea: - % 11,99
	Arduradun teknikoak eta politikoak sentsibilizatzeko eta gaitzeko mugaz gaindiko ekintzak:		Gauzaturiko ekintza.
	1. Tokiko bizikleta-politiken gida idaztea, argitaratzea eta hedatzea (Ederbidea proiektua, POCTEFA)	30.000,00 €	Gauzaturiko aurrekontua: 21.670,60 € Desbideratzea: - % 27,76
	2. Bizikleta bidezko mugikortasunari buruzko ezagutzak trukatzeko eta	17.545,00 €	Gauzaturiko aurrekontua: 13.702,50 €



## Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua  
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

	gogoeta egiteko foroa dinamizatzeko zerbitzua (Ederbidea proiektua, POCTEFA)		Desbideratzea: % 0,00 <sup>4</sup>
--	--	--	------------------------------------

### 5. Bizikleta turismorako eta naturara iristeko aukera bihurtzea

Programak	Aurreikusitako ekintzak	Aurreikusitako aurrekontua	Gauzatze-maila
5.1 Nazioarteko bizikleta-sareak bultzatzeko programa	<p>EuroVelo sareari eta mugaz gaindiko beste ekimen batzuei jarraipena eta laguntza ematea:</p> <ol style="list-style-type: none"><li>Mugikortasuneko eta Garraioko Zuzendaritza Nagusiak EuroVelo sareari eginiko jarraipen-ekintzekin eta Conseil départemental des Pyrénées Atlantiques erakundearekiko lankidetzarekin jarraitzea.</li><li>Bizikleta-bideen plangintza integratuari buruzko agiri laburtua egitea (EDERBIDEA proiektua, POCTEFA).</li></ol>	Zehaztu gabeko kopurua	<p>Ekintza partzialki gauzatu da.</p> <ol style="list-style-type: none"><li>Espainiako estatuan EuroVelo proiektuaren gauzatzearen eboluzioa jarraitzeaz gain, GFA 2017an EuroVelo-ren Koordinazioko Zentro Nazionalean sartu da.</li></ol> <p>Gauzaturiko aurrekontua: 500,00 €</p> <ol style="list-style-type: none"><li>Plangintzari buruzko agiri laburtua egitea Conseil départemental des Pyrénées Atlantiques erakundearen esku dago, eta 2018ra luzatu da.</li></ol>
5.2 Bizikleta barne hartzen duten turismo-produktuak sustatzeko programa	Bizikletaren aldeko turismo-produktuei informazioaren arloko laguntza, eta, hala badagokio, laguntza ekonomikoa.	Zehaztu gabeko kopurua	<p>Gauzaturiko ekintza.</p> <ul style="list-style-type: none"><li><i>Sister and the city</i> argitaratzea (2017an zabaldua, 2016ko aurrekontuaren kontura).</li></ul>

<sup>4</sup> Adierazi da aurreikusiriko aurrekontuarekiko desbideratzerik ez dela egon; izan ere, 2016an lehenengo ordainketa egin zen, 3.842,50 eurokoa.





## Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua  
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

<p>5.4 Bizikletazko turismoa barnealdean eta kanpoaldean zabaltzeko programa</p>	<p>Aisialdirako (norberarena, familiakoa, eskolakoa, elkarteena, eta abar) Gipuzkoako bizikleta-bideen sarea ezagutzeko eta haren erabilera sustatzeko ekintzak, egungo plataformen bidez.</p>	<p>Zehaztu gabeko kopurua</p>	<p>Gauzaturiko ekintza. Gauzaturiko aurrekontua: 2.500,00 €</p> <p>Kopuru hori Kalapie Hiriko Txirrindularien Elkar-teak sustaturiko proiektuari (Emakume bizian / Mujeres en bici) emaniko diru-laguntzari dagokio.</p> <p>Horrez gain, informazioa zabaltzeko zenbait bideo egin eta zabaldu dira TeleDonostin, eta, gainera, zenbait artikulu berezi argitaratu dira Diario Vasco egunkarian.</p>
--	--	-------------------------------	--

### 6. Bizikleta eguneroko jardura fisikoan eta osasunean txertatzea

Programak	Aurreikusitako ekintzak	Aurreikusitako aurrekontua	Gauzatze-maila
<p>6.4 Kirol-instalazioetara joateko bizikleta eta mugikortasun iraunkorren programa</p>	<p>Kirol-instalazio publikoetara joateko modu aktiboak sustatzeko jarduerak; horretarako, sustapen-kanpaina eraginkorra egingo da, modu seguruan aparatzeko baldintza egokiak eskaintzearen inguruan.</p>	<p>Zehaztu gabeko kopurua</p>	<p>Gauzatu gabeko ekintza.</p>



## 7. Bizikleta eskolaumeen prestakuntzako elementutzat jasotzea

<b>Programak</b>	<b>Aurreikusitako ekintzak</b>	<b>Aurreikusitako aurrekontua</b>	<b>Gauzatze-maila</b>
7.1 Bizikletaren erabilerako gaitasunen inguruko prestakuntza-programa	Bizikletaren erabilerako gaitasunen inguruko prestakuntza-programa: Udal-esparruan eta hezkuntza-esparruan bizikletaren erabilerako gaitasunetan parte hartzen duten eragileen prestakuntza. Helburua da gero beraiek ikasleak heztea eta haien artean bizikletaren erabilera bultzatzea, eta bizikletako gaitasunak modu seguruan sustatzea.	Ez da aurreikusten gasturik sortuko duenik.	Gauzatu gabeko ekintza.

## 8. Bizikletaren aukera jasotzea lan-jardueretako zentroetara iristeko

<b>Programak</b>	<b>Aurreikusitako ekintzak</b>	<b>Aurreikusitako aurrekontua</b>	<b>Gauzatze-maila</b>
8.2 Foru Aldundiko lantokietara oinez eta bizikletaz iristea sustatzeko programa	Gipuzkoako Foru Aldundiko langileen Mugikortasun Iraunkorraren Kudeaketa Plana egitea eta hedatzea 2017-2019 aldirako: lantalde bat eratzea Kudeaketa Plana egin eta hedatzeko.	Zehaztu gabeko kopurua	Lantaldea eratu zen eta lehenengo bilera egin zuen. Bertako ondorioak Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusiari helarazi zitzaizkion, eman beharreko hurrengo urratsak erabaki zitzaizkion.  Zehazki esateko, hainbat sailekiko (Gizarte Politika, Kultura, eta abar) harremanak hasi ziren, bizikletak aparkatzeko moduluak ezartzeko aukera eskaintzeko.



## 9. Bizikletaren eta mugikortasunaren gaineko pertzepzio soziala aldatzea

Programak	Aurreikusitako ekintzak	Aurreikusitako aurrekontua	Gauzatze-maila
9.1 Helduen bizikleta bidezko zirkulazioko trebetasunak areagotzeko programa	Bizikleta-bideen foru-sarearen funtzionamendu-arauak zabaltea eta haren erabiltzaile-mota desberdinen arteko elkarbizitza hobetzea: bizikleta-bideen foru-sarearen funtzionamendu-arauak azaltzeko liburuxka egitea, sare hori zabaldu eta ezagutarazteko, eta haren erabiltzaile-mota desberdinen arteko elkarbizitza hobetzeko	Zehaztu gabeko kopurua	Gauzatu gabeko ekintza.  Liburuxka hori egitea 2018ra atzeratu da.  Horri dagokionez, Eibarren bizikletan ibiltzen ikasteko ikastaro bat egin da helduentzat, eta Udalak errepikatu egin du ikastaroa (5.687,65 €-ko kostua).
9.2 Kulturako osagai gisa bizikletaren erabilera sustatzeko programa	Bizikletari babesa ematea Foru Aldundiak parte hartzen duen kulturakintzetan, eta tokiko administrazioei laguntza ematea eginkizun horretan bertan:  Mahai-inguruak antolatzea Cristina Enea Fundazioarekin lankidetzan (eta noizean behin Donostiako Udaleko Ekologia Departamentuarekin, hileroko Tabakaleran programatzen diren esparruan). Ekintza horiek beste herrien baten programa litezke geroago.	Zehaztu gabeko kopurua	Gauzatu gabeko ekintza.
9.3 Bizikleta sustatzeko programa	Ekimenak garatzea sustapenaren esparru zabalean:		



## Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua  
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

1. gipuzkoabizikletaz.eus webgunea eta sarea sozialak (Facebook eta Twitter) eguneratu eta dinamizatzeara.	7.623,00 €	Gauzaturiko ekintza. Gauzaturiko aurrekontua: 10.744,80 € Desbideratzea: + % 40,95
2. "Bizikletaz" aldizkaria argitaratzea	25.000,00 €	Gauzaturiko ekintza. Gauzaturiko aurrekontua: 24.960,00 € Desbideratzea: - % 0,16  2017an 4 zenbaki argitaratu dira, bakoitzetik 9.000 ale.
3. Twitter eta Facebook-en sustapen-kanpaina kontratatzea, jarraitzaile gehiago lortzeko.	1.000,00 €	Gauzatu gabeko ekintza. Gauzaturiko aurrekontua: 0 €
4. Lankidetzaren hitzarmena Gipuzkoako Ikastolen Elkartarekin eta Kilometroak Kultur Elkartarekin, Kilometroak festarainoko bidea bizikletaz egitea sustatzeko eta errazteko.	7.260,00 €	Gauzaturiko ekintza. Gauzaturiko aurrekontua: 7.260,00 € Desbideratzea: % 0,0
5. Mugitzeko garraio bide gisa bizikleta erabiltzearen alde Gipuzkoan egiten den lana ageriagoan jartzea:  Ekitaldi bat antolatu eta egitea, eta bertan ekintzak egitea bizikletaren erabileraren alde egiten den lana ezagutarazteko.	Zehaztu gabeko kopurua	Gauzaturiko ekintza. Gauzaturiko aurrekontua: 34.967,29 €  - Bicibizi - Guztiok Mugituz Saria - Mugikortasun Astea - Tolosako Bizibira Mugikortasun Astea



## Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua  
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

<p>9.4 Erakunde sozialek bizikleta sustatzeko dituzten ekimenetarako pizgarrien programa</p>	<p>Bizikleta sustatzen duten ekimen sozialei laguntza:</p> <p>Bizikleta garraiobide gisa erabiltzea sustatzeko jarduerak egiten dituzten elkarreentzako laguntzen deialdia.</p>	<p>20.000,00 €</p>	<p>Gauzaturiko ekintza. Gauzaturiko aurrekontua: 24.335,72 € Desbideratzea: + % 21,68<sup>5</sup></p> <p>4 entitateri eman zaizkie diru-laguntzak.</p>
<p>9.6 Kanpoko lankidetzarako programa, mugikortasun iraunkorarekin eta bizikletarekin lotuta</p>	<p>Mugaz gaindiko bizikleta bidezko mugikortasunari buruzko EDERBIDEA proiektuan programaturiko ekintzak gauzatzeari:</p> <ol style="list-style-type: none"><li>1. Bidasoa Ospitalea – Amuteko bigurutzeari bizikleta-bidea/oinetzko bidea eraikitzea.</li><li>2. Tokiko bizikleta-politiken mugaz gaindiko gida egitea.</li><li>3. Mugaz gaindiko foro bat sustatzea, bizikleta bidezko mugikortasunari buruzko ezagutzak trukatzeko eta gogoeta egiteko.</li><li>4. Bizikleta bidezko mugikortasunari buruzko mugaz gaindiko jardunaldia.</li></ol>		<p>Gauzaturiko ekintzak.</p> <p>Ikus 2.1 programa</p> <p>Ikus 1.2 programa</p> <p>Ikus 1.2 programa</p> <p>Ikus 1.2 programa</p>

<sup>5</sup> Aurreikusitako aurrekontuarekiko gertatu den desbideratze positibo horren arrazoia da ASPANOGI elkarteari diru-laguntza nominatibo bat eman zaiola.



**10. Bizikletari laguntzeko plangintza- eta arau-esparru bat sortzea**

<b>Programak</b>	<b>Aurreikusitako ekintzak</b>	<b>Aurreikusitako aurrekontua</b>	<b>Gauzatze-maila</b>
10.2 Bizikletarekin lotutako beste araudi eta gomendio batzuk garatzeko eta hobetzeko programa	Mugikortasunaren edo trafikoaren udal-ordenantzetarako orientabidea ematen duen agiria behin betiko idaztea eta argitaratzea, bizikletazko eta oinezko mugikortasuna hobeto barneratzeko araudietan.	Zehaztu gabeko kopurua	Gauzaturiko ekintza. Gauzaturiko aurrekontua: 7.997,60 €  Agiri honen 400 ale argitaratu ziren liburu-formatuan, eta pdf formatuan ere argitaratu zen.  Era berean, oinezko eta bizikletazko mugikortasunaren udal-ordenantzei buruzko II. Lan Jardunaldietan aurkeztu zen. Jardunaldiak otsailaren 21ean izan ziren Donostian, eta bertara 66 pertsona joan ziren.
10.3 Mugikortasun iraunkorra eta aktiboa (oinezkoa eta bizikletazkoa) sustatzeko zerga-programa	Egungo zerga-sistemaren eta horrek mugikortasun-aukeretan dituen eraginen azterketa egiten hastea. Azterketa horren helburua izango da joan-etorri aktiboak zerga bidez sustatzeko formulak aztertzea.	Zehaztu gabeko kopurua	Gauzatu gabeko ekintza.



## Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua  
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

### 11. Bizikletaren politika kudeatzeko tresnak sendotzea edo sortzea

Programak	Aurreikusitako ekintzak	Aurreikusitako aurrekontua	Gauzatze-maila
11.1 Gipuzkoako Bizikletaren Kontseilua dinamizatzeko programa	2016an hasitako dinamikarekin jarraitzea. Dinamika horren helburua da hezkuntza, informazio, komunikazio eta turismoaren arloetan eragitea.	Ez da aurreikusten berriazko gasturik sortuko duenik.	Gauzaturiko ekintza. Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluak bi bilera egin ditu 2017an.
11.2 Gipuzkoako Bizikletaren Behatokia dinamizatzeko programa	Bizikleta-bideen foru-sarearen erabiltzaileen profilen eta iritzien azterketa-lanetan jarraitzea:  Bizikleta-bideen foru-sareko erabiltzaileei urteroko inkesta egitea.	13.000,00 €	Gauzaturiko ekintza. Gauzaturiko aurrekontua: 11.927,52 € Desbideratzea: - % 8,24
	Bizikleta-bideen foru-sareko txirrindularien eta oinezkoen zirkulazioaren azterketa-lanetan jarraitzea:  Bizikleta-bideen foru-sareko txirrindularien eta oinezkoen zirkulazioari buruzko kontagailu automatikoen sareko datuak ustiatzea.	Ez du berriazko gasturik sortzen.	Ekintza 2018ra atzeratu da.
	Zikloteka Gipuzkoako Bizikletaren Dokumentazio Zentroaren zuzendaritza eta finantzaketa.	8.000,00 €	Gauzaturiko ekintza. Gauzaturiko aurrekontua: 8.000,00 € Desbideratzea: % 0,0



## Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua  
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

		Zikloteka ekimen aitzindaria da European, eta Cristina Enea Fundazioarekin elkarlanean egiten da. Espazio fisikoa eta birtuala ditu, eta haietan, bizikletarekin, garraiobide gisa, lotura duten Gipuzkoan eginiko dokumentuen funtsa dago profesionalentzat, erakundeentzat eta interesa duen beste edonorentzat; 2.000 erreferentzia baino gehiago daude gaur egun, idatzizko euskarrian, euskarri grafikoan eta ikus-entzunezko euskarrian.
Hitzarmena EHUrekin eta Cristina Enea Fundazioarekin, ikerketa-bekabat emateko.  Ikerketa kualitatiboa, eguneroko txirringularririk bizikleta-bideei buruz duten ikuspegia aztertzeko.	Zehaztu gabeko kopurua	Ekintza 2018ra atzeratu da.





### **3. BIZIKLETAREN ESTRATEGIA EBALUATZEKO ADIERAZLE SISTEMA**

Adierazi moduan, Gipuzkoako Bizikletaren Estrategia ebaluatzeko adierazle-sistema bat dago. Adierazle horiek Estrategiako helburuen ondorioz sortzen dira, eta kapitulu honetan aztertuko ditugu.

2016ko Gipuzkoako Bizikletaren Estrategia ebaluatzeko txostenean egiaztatu zen ezin izan zela adierazleen heren bati baino gehiagori buruzko informazioa bildu, hala datu batzuk ezin zirelako eskuratu nola beste datu batzuk argitaratzeko maiztasuna zenbait urtetakoa zelako.

Horrenbestez, txosten honetan kontuan hartuko dira urtero argitaratzen diren adierazleak soilik; dena den, jatorrizko multzoko zenbakiak bere horretan utziko dira, erraz aurkitzeko eta hurrengo urteetan argitaratuko diren txostenekin erkatu ahal izateko.



### 3.1. Mugikortasun-helburu orokorreari lotutako adierazleak

3. helburua	
<i>Herrien arteko joan-etorri aktiboak (oinezkoak eta bizikletazkoak) areagotzea.</i>	
Jarraipen-adierazleak	Emaizak
3.1 Erabiltzaile-kopurua Oinarrizko Foru Sarean jarraipena egiten den tarteetan. Urtean eta laurtekoan izandako aldaketa.	<ul style="list-style-type: none"><li>• 7.747.108 joan-etorri (2015eko datuak).</li><li>• Urtean izandako aldaketa: % 14,12</li><li>• Laurtekoan izandako aldaketa: % 37,79</li></ul>
3.2 Txirrindularien kopurua eta ehunekoa Oinarrizko Foru Sarean jarraipena egiten den tarteetan. Urtean eta laurtekoan izandako aldaketa.	<ul style="list-style-type: none"><li>• 1.544.694 joan-etorri bizikletaz (2015eko datuak).</li><li>• Joan-etorri guztien % 19,93.</li><li>• Urtean izandako aldaketa: % 12,57</li><li>• Laurtekoan izandako aldaketa: % 27,07</li></ul>
<b>Balorazioa</b> 😊	
<p>Oinezkoen eta txirrindularien joan-etorri kopurua Oinarrizko Foru Sarean nabarmena da eta etengabe ari da hazten; hain zuzen ere, 2015. urteari dagokion Bizikletaren Munduko Adierazlearen arabera (adierazle hori Eco-Computer enpresak egiten du, txirrindularien-oinezkoen aforoen sistema automatikoetako sektorean munduko liderrak), Gipuzkoako Bizikleta Bideen Foru Sareak munduko errekorra lortu zuen urte horretan, bizikletaren erabilera aurrera egiteari dagokionez (% 12,6ko datuarekin, munduko batez bestekoa % 3koa izan zen bitartean).</p> <p>Joan-etorrien bolumen hori Lurraldebusek 2015ean garraiatutako bidaiarien % 33,8 da.</p> <p>Txirrindularien joan-etorriek ere gora egiten dute nahiko bizkor; alabaina, erabiltzaile guztien % 20 baino ez dira.</p> <p>Besteak beste, arrazoi hauengatik handitu da erabilera: bizikleta-bideen foru-sarearen luzera areagotu egin da; udalerrietan hobetu egin dira oinez edo bizikletaz ibiltzeko baldintzak; udalek hainbat ekimen abiarazi dituzte bizikletaren erabilera handitzeko; aldaketak gertatzen ari dira mugikortasunaren kulturean, bereziki gazteen artean; krisi ekonomikoak eragina izan du; erregaien prezioa garestitu egin da, eta abar.</p>	



### 3.2. Azpiegitura-helburuei lotutako adierazleak

<b>1. helburua</b> <i>Bizikletarako eta trafikoa moteltzeko hiri-azpiegiturak osatzea Gipuzkoako udalerrietatik % 50etan.</i>			
<b>Jarraipen-adierazleak</b>	<b>Emaitzak</b>		
1.1 Bizikletarako hiri-azpiegiturak egin dituzten edota beren eskumeneko bideetan trafikoa moteltzeko neurriak finkatu dituzten Gipuzkoako udalerrien ehunekoa.	53 udalerrri (% 59,6).		
1.2 Oinarrizko Tokiko Sarean egindako bizikleta-bideen/oinezko bideen luzera eta ehunekoa, guztira eta ibilbideka zehaztuta.	<b>IBILBIDEA</b>	<b>Luzera (km)</b>	<b>Gauzatze %</b>
	1. ibilbidea: Donostia – Irun	27,515	% 67,3
	2. ibilbidea: Donostia – Mutriku	16,900	% 57,6
	3. ibilbidea: Donostia – Beasain	24,188	% 69,6
	4. ibilbidea: Debarroa	9,161	% 47,2
	5. ibilbidea: Urola Bailara	6,997	% 68,2
	6. ibilbidea: Bergara – Beasain	2,437	% 75,1
	7. ibilbidea: Bidasoa Bailara	3,961	% 90,8
	8. ibilbidea: Leitzaran Bailara	2,933	% 100,0
	9. ibilbidea: Ego Bailara	0,000	% 0,0
	Guztira	94,093	% 62,5
<b>Balorazioa</b> 😊			
Bizikletaren Estrategiaren helburu hau erdietsita dago, udalerrien % 60k hiri-azpiegiturak baitituzte bizikletetarako. Bestalde, oinarrizko tokiko sarean gauzatze-maila LAPen aurreikusitakoari erreparatuta, % 62,5ekoa da jada; horrek esan nahi du ehuneko puntu 1 areagotu dela 2016ko datuekin alderatuta.			



## Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua  
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

2. helburua		
<i>Bizikleta Bideen Foru Sarea aurreikusitako luzera osoaren % 80raino osatzea, egungo sarea bikoizteko.</i>		
Jarraipen-adierazleak	Emaitzak	
2.1 Oinarrizko Sarean egindako bizikleta-bideen/oinezko bideen luzera, guztira eta ibilbideka zehaztuta.	IBILBIDEA Luzera (km)	
	1. ibilbidea: Donostia – Irun	28,010
	2. ibilbidea: Donostia – Mutriku	22,826
	3. ibilbidea: Donostia – Beasain	58,344
	4. ibilbidea: Debarroa	35,148
	5. ibilbidea: Urola Bailara	33,494
	6. ibilbidea: Bergara – Beasain	5,416
	7. ibilbidea: Bidasoa Bailara	10,132
	8. ibilbidea: Leitzaran Bailara	22,318
	9. ibilbidea: Ego Bailara	0,000
Guztira	215,688	
2.2 Oinarrizko Foru Sarean egindako bizikleta-bideen/oinezko bideen luzera eta ehunekoa, guztira eta ibilbideka zehaztuta.	IBILBIDEA Luzera (km) Gauzatze %	
	1. ibilbidea: Donostia – Irun	0,494 % 3,6
	2. ibilbidea: Donostia – Mutriku	5,926 % 10,9
	3. ibilbidea: Donostia – Beasain	34,156 % 50,5
	4. ibilbidea: Debarroa	25,987 % 42,1
	5. ibilbidea: Urola Bailara	26,497 % 69,1
	6. ibilbidea: Bergara – Beasain	2,978 % 11,3
	7. ibilbidea: Bidasoa Bailara	6,172 % 100,0
	8. ibilbidea: Leitzaran Bailara	19,385 % 100,0
	9. ibilbidea: Ego Bailara	0,000 % 0,0
Guztira	121,595 % 42,0	



## Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua  
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

2.3 Egungo Oinarrizko Foru Sarearen luzerak laurteko bakoitzerako planifikatutako Sarearekiko izandako desbideratzea.	% -24,1
<p><b>Balorazioa</b> 😞</p> <p>Gaur egun, <b>Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sareak</b> 216 km ditu, eta programazioaren bi laurtekoak amaitzean LAPen aurreikusitako luzera osoarekin alderatuta (440 km), gauzatze-maila % 49koa da. Kopuru horrek esan nahi du 2,3 km gehiago daudela 2016. urtearekin alderatuta; hau da, ehuneko 0,3 puntu handitu da planifikatutako sarearen luzera osoa kontuan hartuz.</p> <p>Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Planak aurreikusten zuen <b>Oinarrizko Foru Sareak</b> 160,2 km-ko luzera izango zuela lehen laurtekoaren amaieran. Hala ere, aldi hori amaitzean dugun luzera 121,6 km-koa da, helburu horren % 75,9 alegia.</p> <p>Gauzatze-maila (LAPen aurreikusitako amaierako luzerarekiko) % 100 era iristen da Oinarrizko Foru Sarearen bi ibilbidetan (Bidasoa bailara eta Leitzairen bailara) eta ia % 70era Urolan. Aldiz, lau ibilbidetan gauzatze-maila % 15 baino txikiagoa da.</p>	



### 3. helburua

*Egun dauden bizikleta-bideetan mantentze- eta eraberritze-lanak egitea, egungo funtzionalitateari eutsi diezaioten edo hura hobetu dezaten.*

#### Jarraipen-adierazleak

#### Emaitzak

3.1 Zaintze- eta jarraipen-protokoloa duten Oinarrizko Foru Sareko bizikleta-bideen eta oinezko bideen luzerak, guztira eta ibilbideka zehaztuta.

IBILBIDEA	Luzera (km)
1. ibilbidea: Donostia – Irun	0,0 <sup>6</sup>
2. ibilbidea: Donostia – Mutriku	3,997
3. ibilbidea: Donostia – Beasain	32,577
4. ibilbidea: Debarroa	21,189
5. ibilbidea: Urola Bailara	25,307
6. ibilbidea: Bergara – Beasain	2,985
7. ibilbidea: Bidasoa Bailara	6,177
8. ibilbidea: Leitzaran Bailara	0,0 <sup>7</sup>
9. ibilbidea: Ego Bailara	0,0 <sup>8</sup>
GUZTIRA	92,232

#### Balorazioa 😊

Gaur egun eginda dauden Oinarrizko Foru Sareko 120,7 kilometroetatik 92,2 km-ren zaintze-lanak eta jarraipena GFak egiten du, eta hori, Leitzaren Bailara kenduta, Sare horren % 92,9 da.

<sup>6</sup> Gaur egun ibilbide honetan ez dago foru-titulartasuneko inongo tarterik zerbitzuan.

<sup>7</sup> 22,3 km-ko luzera duen ibilbide hau foru-titulartasunekoa da, salbu 2,9 km-ko tarte bat; horren titularra Andoaingo Udala da. Antzinako trenbide-plataforma da, eta oinezko eta txirrindulariez gain, baso-ustiaketan lan egiten duten motordun ibilgailu astunek ere erabiltzen dute. Haren kudeaketa Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Ore-kako Departamentuari dagokio. Ez dugu informaziorik egiten diren zaintze-lanen inguruan.

<sup>8</sup> Gaur egun ibilbide honetan ez dago inongo tarterik zerbitzuan.



### 3.3. Zerbitzuekin zerikusia duten helburuekin lotutako adierazleak

<b>2. helburua</b> <i>Sareak sortzea Gipuzkoako esparruan, eskaini ahal izateko bai alokairu-zerbitzuak eta bizikleta-erregistroak, bai lapurreten kontrako sistemak, konponketa-zerbitzuak, bizikletarekin lotutako informazioa trukatzekoak, eta abar.</i>	
<b>Jarraipen-adierazleak</b>	<b>Emaitzak</b>
2.1 Sare horiek izatea (Bai / Ez).	Ez
<b>Balorazioa</b> 😞 Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak ez du programatu ez aurtengorako ez aurreko urteetarako ere, helburu honekin loturiko inongo ekintzarik. Era berean, beste erakunde batzuetan ere ez da antzeko ekimenik sortu, dakigunaren arabera.	

### 3.4. Helburu politikoekin lotutako adierazleak

<b>1. helburua</b> <i>Bizikletaren Kontseilua administrazioen ekimenak koordinatzeko eta bizikletarekin lotutako informazioa trukatzeko espazio bihurtzea.</i>	
<b>Jarraipen-adierazleak</b>	<b>Emaitzak</b>
1.1 Bai / Ez (Adierazle hau zehazteko, Kontseiluaren jardueren deskripzioa eta ebaluazioa behar da)	Bai.
<b>Balorazioa</b> 😊	



## Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua  
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluak (GBK) gogoeta-prozesua bizi izan zuen 2014-2015 aldian, berregituratu eta indarberritzeko, ikusirik bere funtzio-namendu-dinamikaren oinarria zela, batez ere, GFAk bizikleta-mugikortasunaren arloan eginiko jardueren berri ematea kontseiluko kideei. Bat etorri ziren honetan: Araudiak GBK-ri esleituriko gainerako berariazko eginkizunak ahaztu egin zirela, eta, ondorioz, horrek kideen artean interes eta motibazio falta eragin zezakeela. Horrela, arriskuan jar zitekeen aholkularitza-erakunde gisa zuen etorkizuna.

Eginiko gogoetaren ondorioz, GBK-ren balorazio positiboa ondorioztatu zen: erakunde hori bizikleta-mugikortasunaren arloko eragile nagusiak biltzen dituen erakundetzat jotzen da, haien arteko topaketak eta trukeak ahalbidetuz; era berean, gaitasun handia esleitzen zaio. Haren helburuak dira erakunde foro dinamikoagoa eta eragileagoa bihurtzea, arlo horretan eztabaidatu eta proposamenak egingo dituen eta bere kideen partaidetza sustatuko duena. Horregatik, baliabide egokiak eman behar zaizkiola irizten da, denboran iraun dezan eta hobetu dadin, eta tokiko eta eskualdeko ekintzak koordinatu eta eragiteko gaitasuna izan behar duela irizten da. Zehazki esateko, 6 lan-esparru zehaztu ziren erakundearen arreta-gune gisa, eta horiek dagozkien lan-batzordeak sortuko lituzkete. Era berean, GBK-ren osaketa berritzea eta herritarren foroa sortzea proposatu zen.

Gogoeta-prozesu horri erantzuna emateko, 2016ko urtarrilean GFAk proposamen bat aurkeztu zion GBK-ri, interesa zuten eragileekin lantalde bat sortzeko eta horrela urte horretan lor zitezkeen helburuak adosteko hezkuntzaren, informazioaren, komunikazioaren eta turismoaren arloetan. Lan horren helburua izango litzateke:

- Gipuzkoan bizikletaren kultura sustatzearen arloan egiten den lanari balioa ematea eta ikusaraztea;
- metaturiko ezagupen teknikoak trukitzea;
- sortzen ari den enpleguaren berri ematea;
- egungo bizikletaren azpiegiturek eta egokitutako inguruneek eskaintzen dituzten jarduera-aukerak agerian jartzea;
- bizikletak baliabide eta turismo-erakargarrtasun gisa dituen aukerak sustatzea.

2017an zehar GBK elkarteak 2 ohiko bilera egin ditu, eta bere kideen bertaratzea honela garatu da urtean barrena: otsailean deituriko erakundeek % 36, eta azaroan deiturikoen % 35. Kopuru horiek ehuneko 10 puntuko beherakada agertzen dute 2016ko bertaratzearen batez bestekoarekin (% 45) alderatuta eta 16 puntukoa, berriz, 2015eko bertaratzearekin (% 52) alderatuta.

2017an barrena, "Iraurgi Berritzen" landa-garapen elkarteak sartu da Kontseiluan; elkarte horretan biltzen dira Azpeitia, Azkoitia eta Zestoa udalerririk.

## 2. helburua

*Gipuzkoako Bizikletaren Behatokia garatzea, bizikleta bidezko mugikortasuna ezagutzeko oinarritzeko tresna gisa.*





## Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua  
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

Jarraipen-adierazleak	Emaitzak
2.1 Bai / Ez (Adierazle hau zehazteko, Behatokiaren jardueren deskripzioa eta ebaluazioa behar da)	Bai.
<p><b>Balorazioa</b> 😊</p> <p>2017an barrena, Gipuzkoako Bizikletaren Behatokiak jarraitu egin du Bizikleta Bideen Foru Sarearen erabileraren eta bizikletaren erabileraren jarraipen-lanak egiten; horien helburua Sarearen kudeaketa eta mantentze-lanak hobetzea da.</p> <p>Datu horiek garrantzitsuak dira, Bizikleta Bideen Foru Sarean erregistratzen diren fluxuei buruzko ezagutza zehatza eskaintzen dutelako, eta, aldi berean, denboran zehar nolako bilakaera izan duten jakin daitekeelako. Hortaz, lortutako datuak funtsezkoak dira bide bakoitzeko erabiltzaile-motak eta tarte bakoitzaren erabilera aztertzeko, baita bizikleta-bideen plangintza eta zaintze-lanak antolatzeko ere.</p> <p>Gainera, informazio hori ezinbestekoa da, batetik, jakiteko Sarearen tarte berriak abian jartzeak nolako eragina duen oinezkoen eta txirrindularien mugikortasunaren sustapenean, eta, bestetik, gizarteari aditzera emateko bizikleta-bideen azpiegituran eginiko inbertsioek etengabe dakartela errentagarritasun sozial handia. Azkenik, aforo horiek aukera ematen digute oinezkoen eta txirrindularien fluxu kritiko posibleak antzemateko, eragina izan baitezakete erabiltzaileen arteko elkarbizitzan.</p> <p>Horretarako, Behatokiak oinezkoen eta bizikleten aforaleku automatikoen sarea dauka Bizikleta Bideen Foru Sarean (18 aforaleku), eta etengabe ematen dituzte datuak joan-etorriei buruz. Horri dagokionez, azpimarratu beharra da 2017an Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak 10 kontagailu berri eskuratu dituela Foru Sareko oinezkoen eta txirrindularien fluxuak monitorizatzeko, hain zuzen ere trafikoa kontrolatu gabe zegoen eta zerbitzuan zeuden tartetean jartzeko.</p> <p>Datu horiek osatzeko galdetegi bat egiten da urtero, eta Bizikleta Bideen Foru Sarearen erabiltzaile diren 400 txirrindularik eta 150 oinezkok hartzen dute parte. Galdetegi horren bidez jakin nahi da nolako profil soziologikoak dituzten, zergatik desplazatzen diren, zenbateko gogobetetasun-maila duten, zer iradokizun dituzten, eta abar. Aurten ere, 2009tik hona egin izan den moduan, txosten bat egin da galdetegiak emandako datuak biltzeko eta aztertzeko (<i>Gipuzkoako foru bizikleta-bideen erabilerari buruzko azterketa. 2017</i>), Deitel Direct, S.L. aholkularitza-enpresaren eskutik.</p>	



## Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua  
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

3. helburua	
<i>Gipuzkoako Foru Aldundian dagozkion departamentu guztiak sartzea bizikletaren politikan.</i>	
Jarraipen-adierazleak	Emaizak
3.1 Bai / Ez (Adierazle hau zehazteko, departamentuen eta horien zuzendaritza nagusien jardueren ebaluazioa behar dira).	Bai.
<b>Balorazioa</b> 😊  2017an, Gipuzkoako Bizikletaren Estrategiaren jarduerak gauzatzen lagundu duten departamentuak egun dauden 9etatik 4 izan dira: <ul style="list-style-type: none"><li>– Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioa.</li><li>– Bide Azpiegiturak.</li><li>– Ingurumena eta Obra Hidraulikoak.</li><li>– Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa.</li></ul> Zenbaki hori bat dator 2015ean eta 2016an lorturikoarekin; desberdintasuna da aurreko urteetan Kultura, Turismoa, Gazteria eta Kirola Departamentuarekin lankidetzatza izan zela eta aurten ez; baina Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioa Departamentuarekin harremana ezarri zen.	



### 3.5. Zerga- eta aurrekontu-helburuekin lotutako adierazleak

1. helburua	
<i>Garraio-azpiegituretako inbertsioetarako foru-aurrekontuen % 15 bideratzea oinezko eta bizikletazko mugikortasunera.</i>	
Jarraipen-adierazleak	Emaitzak
1.1 Oinarrizko Foru Sarea egiteko aurrekontu gauzatua eta bideratua <sup>9</sup> . Planifikatutako aurrekontuarekiko desbideratzea.	<ul style="list-style-type: none"><li>Aurrekontu planifikatua: 1.955.800,00 €</li><li>Aurrekontu gauzatua: 1.884.448,39 €<sup>10</sup></li><li>Desbideratzea: - % 3,64</li></ul>
1.2 Oinarrizko Foru Sarearen mantentze-lanetarako aurrekontu gauzatua eta bideratua. Planifikatutako aurrekontuarekiko desbideratzea.	<ul style="list-style-type: none"><li>Aurrekontu planifikatua: Zehaztu gabe</li><li>Aurrekontu gauzatua: 845.500,00 €</li></ul>
1.3 Oinarrizko Foru Sarea (OFS) <sup>11</sup> eraikitze eta haren mantentze-lanak egiteko aurrekontu gauzatu eta bideratuaren ehunekoa, garraio-azpiegituretako inbertsioaren guztirako aurrekontuaren aldean.	<ul style="list-style-type: none"><li>Inbertsio-aurrekontua guztira: Datua ezezaguna da.</li><li>OFSk ordezkutzen duen ehunekoa:</li></ul>
<b>Balorazioa: ezin da baloratu</b>	
Oinarrizko Foru Sarea eraikitze planifikatutako aurrekontuaren gauzate-maila % 96,4koa izan da.	
Kontuan izan behar da Oinarrizko Foru Sarea gauzatzeko planifikatutako 2017ko aurrekontuan sartzen zela Bidasoa Ospitalea – Amuteko bidegurutzeari tartea egitea. Jarduera hori berriro ere atzeratu egin da, Portu eta Itsasertzen Zuzendaritza Nagusiaren derrigorrezko baimena jasotzean izaniko atzerapenagatik, eta 2018an egingo da. Horregatik, aurrekontuaren zati bat Urrestillako bidegorria kofinantzatzeko eta Antzuolako Iraetako tunelaren mantentze- eta zaintze-lanetarako erabili da.	
2017rako planifikatutako aurrekontua 2016koari dagokionarekin (2.429.622 €) konparatuta, ikusten da % 19,5 txikiagoa izan dela.	

<sup>9</sup> Desjabetzeak barne.

<sup>10</sup> Lezo – Pasaia Donibane bizikleta-bideari dagokion kopuru horren zatiak Europako Batzordearen diru-laguntza jasoko du, EGEF Eskualde Garapenerako Funtsetan bidez.

<sup>11</sup> Desjabetzeak barne.



## Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua  
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

Aurten gauzatutako aurrekontuari begiraten badiogu, 2016koa (1.129.568 €) baino % 66,8 handiagoa izan da.

Adierazle hau ezin da baloratu, ezin izan delako garraio-azpiegituretako inbertsioaren gutzirako foru-aurrekontuari buruzko informaziorik lortu.

### 2. helburua

*Mugikortasun aktiborako zerga-pizgarriak ezartzea.*

Jarraipen-adierazleak	Emaitzak
2.1 Pizgarri horiek izatea (BAI/EZ), eta dauden kasuan, horien kopurua zenbatestea.  (Kasu honetan pizgarrien deskripzio bat behar da, eta haien bilketa-testuingurua).	Ez
<b>Balorazioa</b> 🚫  Ez da helburu hori lortzeko inongo jarduerarik egin.	



### 3.6. Arauketa-helburuekin lotutako adierazleak

1. helburua <i>Zehaztapenen artean bizikleta sartzen duen hirigintza- eta lurralde-araudi bat edukitzea.</i>	
Jarraipen-adierazleak	Emaitzak
1.1 Bai / Ez  (Dagokion organoak onartutako hirigintza- edo lurralde-plan berri bakoitzak bizikletazko mugikortasunari lotutako zehaztapenak jaso beharko ditu).	Bai
<b>Balorazioa</b> 😊  2017an barrena, hiri-antolaketako bi plan orokor onartu dira behin betikoz Gipuzkoan <sup>12</sup> eta Gipuzkoako Bizikleta Bideen LAPek ezarritako bizikletazko mugikortasunari buruzko zehaztapenak jaso ditu LAP horrek eragiten dion bakarrak (Hondarribiak); aurreko urteetan LAPek eraginiko gainerako udalerriek onartu dituzten planetan ere horrela egin da.	

<sup>12</sup> Albizturren eta Hondarribian.



<b>2. helburua</b> <i>Bizikletaren beharrak jasotzea onartzen diren hirigintzako udal-plan berri guztietako zehaztapenetan.</i>	
<b>Jarraipen-adierazleak</b>	<b>Emaitzak</b>
2.1 Bai / Ez	Bai
2.2 Hirigintzako antolamenduan bizikletarekin lotutako zehaztapenak jasotzen dituzten hirigintzako udal-planen kopurua.	1 <sup>13</sup>
2.3 Bizikletarekin lotutako zehaztapenak jasotzen dituzten hirigintzako udal-planen ehunekoa, hirigintzako udal-plan guztiekiko.	% 50
<b>Balorazioa</b> 😊 <p>Gipuzkoako Bizikletaren Estrategia prestatzeko 2014an egindako udal-galdetegian adierazten denez, 88 udalerrietatik<sup>14</sup> % 38,6k jasotzen zituzten hiriko bizikleta-azpiegiturak plangintzan; kopuru hori % 45,5era iritsi zen, hiri arteko bizikleta-bideen kasuan.</p> <p>Ehunekoa are handiagoa da 2013ko ekainean Bizikleta Bideen LAP onartu ostean udal-plangintza eguneratu duten udalen kasuan. Izan ere, data horretatik gaur egunera arte, Albizturren, Araman eta Belauntzan izan ezik, eraginiko beste 14 udalerriek (udalerrri guztien % 82k) bizikletarekin loturiko zehaztapenak jaso dituzte beren hirigintzako plangintza berrietan.</p>	

<sup>13</sup> Hondarribiak LAPek ezartzen dituen bizikleta-sareko proposamenak sartu ditu, tokiko beste bizikleta-sare batzuekin osatuta.

<sup>14</sup> Guztira 73 udalerririk erantzun zioten galdetegiari, eta horietan bizi da lurralde honetako biztanleen % 96.



<b>3. helburua</b> <i>Mugikortasunari edo trafikoari buruzko ordenantzak bizikletara egokitzea erregulazio-modalitate hori duten Gipuzkoako udalerrietatik % 75etan.</i>	
<b>Jarraipen-adierazleak</b>	<b>Emaitzak</b>
3.1 Bai / Ez	Bai, partzialki.
3.2 Mugikortasunari buruzko ordenantzetan bizikletaren beharren ikuspegia jasotzen duen Gipuzkoako udalerri-kopurua.	Datua ezezaguna da.
<b>Balorazioa</b> 😊 <p>Uste da Gipuzkoako 7 udalerritan dituztela gaur egun mugikortasunari edo trafikoari buruzko udal ordenantzak; dena den, kasuan kasu ez dakigu zer mailatan txertatu duten bizikletazko mugikortasuna erregulazioetan.</p> <p>Helburu hori erdiesteko bidean aurrera egiteko, GFak 2015ean eskatu zion Mirua 21 aholkularitza-enpresari “<i>Gipuzkoan bizikleten eta oinezkoen trafikoari buruzko udal-ordenantzetarako edukien proposamena</i>” dokumentua idazteko. Horren helburua udalerriei laguntzea zen, trafikoari, espazio publikoari eta mugikortasunari buruzko araudietan orain baino areago txertatzeko txirringularen eta oinezkoen mugikortasuna.</p> <p>Eztabaida teknikoan landu zen dokumentua, 2016ko urriaren 19an eginiko “<i>Oinezkoen eta txirringularen mugikortasuneko Udal Ordenantzei buruko lan-jardunaldia</i>” deiturikoaren esparruan. Hala, bertan bildutako ekarpenekin batera, "Gomendio teknikoak bizikletazko mugikortasuna udal ordenantzetan sartzeko" izeneko gida egin da; Esther Anayak idatzi du, bizikletazko mugikortasunaren arloko aholkulari eta ikerlariak, eta 2018an argitaratuko da.</p>	



Proposaturiko helburuak ebaluatzeko Bizikletaren Estrategiak ezartzen dituen adierazleak<sup>15</sup> kontuan izaten baditugu, taula hau dugu laburtuta, haiek globalki ulertzeko:

<b>Adierazleak laburtzeko taula</b>			
1. Mugikortasun-adierazleak	-	-	😊
2. Azpiegituren adierazleak	😊	-	😊
3. Zerbitzuen adierazleak	-	😞	-
4. Plangintzaren eta mugikortasunaren kudeaketaren adierazleak	-	-	-
5. Helburu politikoaren adierazleak	😞	😊	😞
6. Zerga-sistemaren eta aurrekontuen arloko adierazleak	😞	😞	-
7. Erregulazioaren adierazleak	😊	😊	😞

<sup>15</sup> Aurrez aipatu den bezala, urtero argitaratzen diren adierazleak bakarrik aztertuko dira; izan ere, multzoa osatzen duten adierazleen herena baino gehiago zenbait urtean behin argitaratzen dira, edo, beste arrazoi batzuegatik, ez daude eskuragarri.





Horrela, beraz, informazioa dugun Bizikletaren Estrategiaren adierazleetatik emaitza global hauek lortzen dira:

- Balorazio positiboa duten adierazleak: 6 (% 50)
- Tarteko balorazioa duten adierazleak: 3 (% 25)
- Balorazio negatiboa duten adierazleak: 3 (% 25)

Datu horiek konparatzen baditugu 2016an lorturikoekin, ikusten dugu, alde batetik, adierazleetako bat (garraio-azpiegituretako inbertsioetarako foru-aurrekontuen % 15 oinezko eta bizikletazko mugikortasunera bideratzea) ezin izen dela burutu, ezin izan direlako eskuratu dagozkion datuak. Gainerako adierazleetan ez da egon aldaketarik bakoitzak jasoriko balorazioetan; hala ere, adierazle bat gutxiago izan denez, ehunekoak aldatu egin dira.

Balorazio negatiboa izan duten adierazleei begiratzen badiegu, ondorio nagusia da azpiegiturei, zerga-sistemari eta aurrekontuei buruzko adierazleek agerian jartzen dutela inbertsio-ahalegina areagotzeko beharra (aurrez aipatua), Bizikletaren Estrategiaren helburua lortzeko.



#### 4. BALANTZEA

1. Ikuspegi orokorretik, frogatzen dugu 2017an 22 jarduera egin direla guztira Gipuzkoako Bizikletaren Estrategiaren esparruan; 2016an eginikoak (30) baino 8 gutxiago dira horiek.
2. 2017an gauzatutako eta Gipuzkoako Bizikletaren Estrategiaren ekintzei lotutako foru-aurrekontua 3.796.700 eurokoa da, hau da, 2016an gauzatutako kopuruarekiko % 51,2 areagotu da.

	Gauzatutako aurrekontua			
	2016		2017	
	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
Azpiegiturak eta zerbitzuak	2.404.414,17 € <sup>16</sup>	% 95,8	3.330.815,85 €	% 87,73
Sustapena, kudeaketa eta erregulazioa	106.236,88 €	% 4,2	465.884,98 €	% 12,27
<b>Guztira</b>	<b>2.510.651,05 €</b>	<b>% 100,0</b>	<b>3.796.700,83 €</b>	<b>% 100,0</b>

Zenbateko hori 5,3 €-ko gastua da urteko eta biztanleko<sup>17</sup>, 2016an baino (3,6 €) 1,73 € gehiago. Zenbatekoa nabarmen urruti dago arlo honetara Gipuzkoako Bizikletaren Estrategiak urteko eta biztanleko bideratu nahi duen ratioetik (10-12 euro)<sup>18</sup>; izan ere, irizten da ratio horretatik behera zaila dela bizikletaren erabilera modu esanguratsuan igotzea.

<sup>16</sup> Zenbateko hau kontzeptu hauen batura da: 1.129.567,56 euro bizikleta-bideen Oinarrizko Foru Sarea eraikitzeke; 412.846,61 euro hiri-eremuetan trafikoa moteltzeko eta txirrindulariak galtzadan sartzeko ekintzak egiteko; eta 862.000 euro bizikleta-bideen Oinarrizko Foru Sarearen zaintze-lanetarako.

<sup>17</sup> 712.801 biztanle. Iturria: EUSTAT (2017). “Euskal Aeko biztanleria jaiotza-urteari jarraiki, lurralde historiko eta sexuaren arabera”.



Ahalegin ekonomiko hori betetzeak, gainera, “*Gipuzkoan bizikleta garraiobide gisa erabiltzeari buruzko ikerketa soziologikoa*”<sup>19</sup> lanean jasoriko iritziaren bermea du. Iritzi horren arabera, biztanleen gehiengo esanguratsua (% 79) oso ados (% 35) edo nahiko ados (% 44) dago Gipuzkoan bizikleta bidezko mugikortasuna sustatzeko baliabide publiko gehiago inbertitzeko aukerarekin; bitartean, oso ados ez daudenak edo batere ados ez daudenak % 20 dira.

3. 2017an izan den aurrekontuaren igoera bereziki 1. ardatzean izan da, “Foru azpiegitura- eta zerbitzu-sarea osatzea eta hobetzea”, baina beste lau ardatzetan ere aurrekontua igo egin da.

Bizikleta-bideen Oinarrizko Foru Sarea garatzeko 2017ko aurrekontua igo egin bada ere, horrek ez du konpontzen Gipuzkoako Bizikleta Bideen LAPek aurreikusitako programazio ekonomikoan dagoen desfasea Oinarrizko Foru Sarearen zatiak gauzatu eta zainztearen arloan, lehenengo laurtekorako 60,4 milioi eurokoa baita. Horren ondorioz, egungo Oinarrizko Foru Sarearen luzera 121,6 km-koa da, eta LAPen aurreikusten zen lehenengo laurtekoaren amaieran 160,2 km-ko luzera izango zuela.

Ondorioz, azpiegituren arloan estrategia honen helburuak erdiesteko, hau da, 2022. urtean foru-sarearen % 80 funtzionamenduan egoteko, bizikleta-bideen Oinarrizko Foru Sarea gauzatzeari eta zaintzeari bideraturiko egungo inbertsioaren joera asko aldatu beharko litzateke.

---

<sup>18</sup> Gogora dezagun proposamen hau nazioarteko hainbat erreferentzian oinarritzen zela, adibidez Frantziako erreferentzian, non biztanleko eta urteko 10 euro inguruko inbertsio-beharrak kalkulatu ziren (Atout France: “*Spécial économie du vélo*”. Paris, 2009); gutxieneko zenbateko hori gomendatzen du ECF European Cyclists Federation erakundeak ere (Press release: “*More cycling to avoid air pollution*”. Brusela, 2018); zenbatekoa pixka bat txikiagoa da Erresuma Batuko Parlamentuak bizikleta-mugikortasunerako politika ezartzeko zehazturiko gutxieneko zenbatekoa (12,5 euro edo 10 libra esterlina) baino (All Party Parliamentary Cycling Group: “*Get Britain Cycling*”, 2013), eta oso urruti dago Herbehereak biztanleko eta urteko inbertitzen duenetik (30 euro) edo Danimarkak inbertitzen duenetik (24 euro).

<sup>19</sup> SIADECO (2014): “*Gipuzkoan bizikleta garraiobide gisa erabiltzeari buruzko ikerketa soziologikoa*”. Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia.



4. Aipatu beharra dago bi ardatzetan murriztu egin dela ahalegin ekonomikoa, 3. ardatzean izanikoa nabarmenduz: “Bizikletak galtzade-tan sartzea: trafikoa moteltzea”; hemen beheranzko joera dago azken bi urteotan. Era berean, aipatu beharra dago hamaika ardatz estrategikoetako lautan<sup>20</sup>, ez dela inongo gasturik edo inbertsiorik egin, 2016an gertatu zen bezala. Hori eragozpen bat da ardatz horiek zabaltzeari dagokionez eta estrategiaren helburuak lortzeari dagokionez.
5. Aurrekontuaren banaketa aztertzen bada azpiegituren eta zerbitzuen arlora edo sustapen, kudeaketa eta erregulazioaren arlora bideratutakoaren arabera, ikusten dugu aurreikusitako eta gauzatutako zenbatekoak lehenengo arloan daudela gehien bat oraindik ere, proportzio txikiagoan bada ere. Garapen horren arrazoia da aurrekontu-ahalegin handiagoa egin dela sustapen, kudeaketa eta erregulazioaren arloan, eta horrela, arlo horren zuzkidura hirukoiztu egin dela 2017an.

	Gauzatutako aurrekontua	
	2016	2017
Azpiegiturak eta zerbitzuak	% 95,8	% 87,73
Sustapena, kudeaketa eta erregulazioa	% 4,2	% 12,27
<b>Guztira</b>	<b>% 100,0</b>	<b>% 100,0</b>

Honakoa gogoratu behar dugu: Bizikletaren Estrategiak ezartzen du estrategia horren lehenengo urteetan inbertsio-ahalegin handiago egin dadila azpiegitura eta zerbitzuetan sustapen, kudeaketa eta erregulazioan baino. Hala ere, bi arlo horien proportzioa orekatuz joan beharko da estrategia garatu ahala eta sareak osatzen joan ahala, hori izanik inbertsio gehien eskatzen duen elementuetako bat.

Hori horrela, gaur egun joera jakin bat ari da sendotzen: strategiaren lehenengo laurtekoaren amaieran azpiegiturak aurrekontuaren % 90 izatea eta sustapenera bideraturiko kontu-sailak % 10 izatea lortzea. Bigarren laurtekoaren amaieran, berriz, zenbaki horiek oraindik orekatuago egon behar dira, % 80/20 inguruko banaketarekin.

<sup>20</sup> 4. ardatz estrategikoa. Bizikletaren eta motordun ibilgailu kolektiboen intermodalitatea hobetzea; 6. ardatz estrategikoa. Bizikleta eguneroko jarduera fisikoan eta osasunean txertatzea; 7. ardatz estrategikoa. Bizikletan ibiltzea eskolaumeen prestakuntzako elementutzat jasotzea; eta 8. ardatz estrategikoa. Bizikletaren aukera jasotzea lan-jardueretako zentroetara joateko.



### DISTRIBUCIÓN DEL PRESUPUESTO EJECUTADO, POR EJES Plan de Gestión de la Estrategia de la Bicicleta de Gipuzkoa 2017

